

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko martxoaren 29a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Ultzama • Gero eta zailago dute ultzamarrek beren ibarrean bizitzeko toki bat topatzea • 2

Lizarra • Domingo Llaurok hamalagarrenez paratu du argazki zaharren erakusketa kultur etxean • 3

Euskararen zaindariak



Iragan astean, gogoz kontra eta Nafarroako Auzitegi Gorenaren agindua betez, Iruñeko Udalak Marceliano Etxeko errotulazio elebakarra aldatu behar izan zuen. Helegite bati esker lortu da hori. Administrazioan euskararen erabilpena ziurtatzeko administrazioa bera erabiltzea eraginkorra izaten ahal dela erakutsi dute euskararen zaindariak. Era berean, euskara teknikariak ere zaindari lanetan ditugu, administrazio baretik administrazio beraren gustuko ez den jarduera egiten.

Ultzama ●



Ultzaman jende askok behar du etxebizitza. Irudian, Irazozko etxeak.
● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Herrian bertan ezin bizi

Talde bat sortu dute Ultzaman etxebizitzaren beharra aztertzeko eta mugitzeko

Ultzaman egindako ikerketa baten arabera, jaiotze tasa jaitsi egin da 1990. urtetik hona, eta hiltze tasa izugarri handia da. Hala ere, ikerketa berak dio laurogeita hamar bat pertsonak etxebizitza baten premia dutela.

HERRI GEHIENETAN GERTATZEN den bezala, gero eta zailagoa dute ultzamarrek beren herrian bizitzeko toki bat topatzea: hutsik dauden etxeak ez dituzte saltzen, salgai jartzen dituztenek ikaragarriko prezioa dute, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintzarik ez da egiten eta eraikitzekeo lur pusken prezioa ere ziztu bizian igotzen ari da.

Hori guztia ikusita, Ultzama-ko hainbat lagun elkartu ziren gai horri heltzeko. Talde horrek galdetegi bat egitea

plansatu zuen, bailaran etxebizitza bat zenbatek izan nahi duten jakiteko. Udalarari inkesta egiteko proposatu eta hark proposamena onartu zuen. Dena den, onartu zenetik urtebete pasatu zen galdetegi etxez etxe egin arte, talde horretako kide Jorge Murillok NAFARKARIARI esplikatu dionez. «Batasuna taldeak sartu zuen proposamena, eta onartu ondoren, udal bilkura guztietan gogoratu behar izan zuten galdeketa egin behar zela; azkenean, urte bat pasatuta,

gainera, etxe bakar batzuetara bidali dute». Dena dela, atera ziren datu batzuk interesgarri bezain kezkarriak ziren. Konparazio baterako, biztanle kopurua handitu duten herri bakarrak Eltzaburu eta Gerendiain dira, bigarrena batez ere, zahar etxea bertan dagoelako.

Hiltze tasa ere oso handia da Ultzaman, eta 1.614 biztanleetatik %24k 65 urtetik gora daukate —Nafarroa osoan %17k—. Ultzamatik, batez ere, 15 eta 35 urte bitarteko emakumeek alde egiten dute, Iruñerrira bati bat, eta ezkongabe asko daude. Jendeak alde egiteko arrazoi nagusia etxebizitzaren arazoa da. Horregatik, hain zuzen ere, bildu ziren herrietako gazteak, Jorge Murilloren ustetan «etxe bat edukitzea irakaskuntza edo osasun zerbitzua jasotzea bezala, eskubide bat delako. Horregatik, Gobernuak edo kasu honetan Ultzama-ko Udalarik bitarteko guztiak paratu behar ditu, etxea behar duenak etxe propioa izan dezan». Horren alde jarraituko dute lanean ultzamar horiek, hurrengo bileran arkitektoekin egiten dute eta interesatu guztiak har dezakete parte.

Udalak berak prestatutako inkesta bidali zuten etxe guztietara».

Herritarren erantzunarekin harrিতuta

Udalan harrিতuta gelditu ziren guztiak; 107 erantzun jaso zituzten. Eta ikerketa zabalagoa egiteko enkargua eman zioten Estudios Informes Navarra S. L. Tuterako enpresari. Murillok dionez, «bigarren ikerketa horrek ez zuen zentzu handirik, argiagoa zen Udalarik egin zuena, eta,

→ Txari Eleta

Proiektu anitz Basaburuan

ULTZAMAREN MUGAN DAGOEN BASABURUA BAILARAN BESTELAKO DA egoera. Herri txikiak dira eta husten ari dira horiek ere, baina gaur egun esku artean dituzten proiektu guztiak gauzatuz gero, egoera bestelakoa izanen da hemendik gutxira.

Hasteko, babes ofizialeko zortzi etxebizitza egiteko lur sail bat prestatu zuen Udalarik. Zazpi lagun interesatu ziren eta Usarra elkarteak sortu zuten, beren kabuz kudeatzeko. Haiei eman zieten proiektua, baina hainbat desadostasun sortu ziren elkartearan eta Udalaren artean. Basaburuko alkate Benito Alberrok NAFARKARIARI adierazi dionez, «beraiek esaten zuten garesti samar paratu genuela prezioa eta atzera egin zuten». Orain enpresa eraikitzaile bati emateko asmoa dute, baina

oraindik ez da aurkeztu inor. Bestalde, enpresa pribatu batek 90 etxebizitza eraikiko ditu aurki Aizarotz herrian. Alkatearen hitzetan, «hiri moduko zerbait egin nahi zuten hasieran, eta ezetz esan zitzaizkien, herri bat bezalako zerbait egiteko». Azkenean, aldaketa batzuk egin ondoren, ados jarri ziren eta, dagoeneko, lur sailan garbiketarako egiten hasi dira. Etxebizitzak heldu den urtearen bukaerarako prest egon direla uste dute.

Azkenik, Itxason, herriko kontzejua eta Basaburuko Udalarik sustaturik, zortzi lur sail atera dituzte salgai etxebizitzak egiteko. Horietako lau salduta daude jadanik. Beraz, aurrez ikusten ahal da hurrengo urteetan biztanle kopurua —edo, behintzat, etxe kopurua— izugarri igoko dela Basaburu Nagusian.

irulegitik

JOJO BIDART



Duela lau urte ireki nahi zen bidea berriz ere aipagai dugu Aberri Eguna bezpera honetan.

Ez dira, segur, hastapeneko ilusioak sendi, ez eta abertzale familiarren anaia nagusien konpromisoak agertzen oraino. Denbora beharko da, dudarik gabe, desegina izan den amets hura berriz itxurazteko, ireki diren zauriak sendatzeko, anaia samurtuen arteko konfiantza urratuaren arrazotzeko.

Denbora eta kementa ez zaie eskasten Lizarratik Garazirat doan sasipeko xendrarik lotu zaizkion laguniei, ez dutelako beste aterabiderik ikusten.

Alderdi nagusien arteko eremurik ez dagoela errepikatua zaie, baina gauden ateka gaixotik ateratzeko mi-

Lizarratik Garazirat

litante xoilan deiak ari dira azkartzen. Oraingoan Iparraldetik abiatu da deiadarra.

Baina zer egin dezake samurtuak diren etxeko semeen arteko anaia tikiienak?

Iparraldeko egoera bera ez da hain esperantzagarria, egia erran. Duela hogeita hamar urteko makur berak agertzen dira gaur egun, ondorio ilunagoekin: euskara baztertzeko, lurra galtzeko eta bizitegiak ez herriko gazteentzat. Alta, ez dira iniziatibak eskatu denbora berean: ikastolak, irratia, gau eskolak, Euskal Konfederazioa, ELB laborarien sindikata, bai eta Garapen Kontseilua ere. Baina eritasuna kronikoa bihurtu da eta itxurakeriatik kanpoko tratamendua baitezpadakoa izanen da.

Iparraldeak beharko du bere bidea atzeman, araberrako konpetentziak ukanen dituen erabaki guneak eskuratu.

Gaur egun bide hori ez da bere auzoetatik bereiz agertzen eta duela hogeita hamar urte baino segurkiago Euskal Herri osoaren tokia Europan ikusten da.

Baina dauden edo sor daitezkeen egitura administratiiboaren artean, alderdien artean, gizarteko partaideen artean biltzeko baldintzak egokitu behar ditugu oraino.

Lizarratik Garazirateko bidea gogoeta anitz egiteko gunea izanen da.

Esperantza berri bat? Goizegi da errateko.

Lizarra ●

Oroitzapenerako irudiak

Iraganaren lekuko diren 92 argazki zahar eta kutun paratu dituzte kultur etxean

Hamalagarren urtez eskegi dituzte Lizarrako argazki zaharrak dagoeneko ohiko bihurtu den erakusketa arrakastatsuan. Domingo Llauro arduratzen da urtez urte argazkiak biltzeaz eta horrela gure historia hurbila irudikatzeaz.



Argazki zaharrekin batera, hainbat agiri eta izkribu paratu ditu Domingo Llaurok aurtengo erakusketan. ● JACOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

OROIMENAREN ZIRRIKITUETatik ibilaldia egiteko aukera ematen du *Oroitzapenerako irudiak* izeneko erakusketak. Orain etxeak dauden lekuan garai batean zelaiak eta arbolak zeudela ikus dezakegu, orain errepidēa dagoen lekuan garai batean harrizko bidea zegoela ikus dezakegu... Adineko jendeak oroimenean gordetzen du bere haurtzaroko Lizarra eta, oroitzapen horiek egiaztatzeke xedarekin, erruz biltzen dira erakusketa ikustera. Klasiko bihurtu da urtez urte Fray Diego kultur etxean paratzen duten erakusketa.

Argazkiak eta bertze Lizarra auzoko zumar zaharrekin, San Miguel elizako antzinako erlojuarekin edo hiriko argazki panoramikoarekin batera, garai bateko dokumentu eta izkribu zaharrak ere bildu dituzte aurreneko aldiz erakusketan. Hala, udal aginduak, jaietako egitarauak, antzinakó zinema eta antzerki emanaldien kartelak eta abar bildu dituzte. Bitxikeria moduan, 1876. urteko udal agindua ikus daiteke. Orduko alkateak, Eugenio Erasok, hainbat arau ematen ditu aginduan eta, bertzeak bertze, deduz jantzeko agindua zehazten

du, horrela ez bada bost pezeta-ko isuna ordaindu beharko baita. Udal aginduak pregonariak ematen zituen jakitera, kalez kale egiten zuen ibilbidean.

Halaber, Lux Zinema zaharrean eman zuten estreinako filmaren kartela ikus daiteke, 1962. urteko maiatzaren 24an eman zuten *El demonio, la carne y el perdón* pelikularena. Dirk Bogarde aktorea izan zen film horren protagonista nagusia.

Domingo Llauroren ekimeenez egin zen aurreneko argazki zaharren erakusketa, 1988. urtean. Orduan bere argazkiak paratu zituen, eta izan zuen

arrakasta ikusita, urtez urte arduratu da erakusketa prestatzeaz. Gerotik bere argazkiez gain, erakusketa bisitatzeraz joaten diren argazkiak ere paratzen ditu erakusketan. «Aurtengo erakusketan hamalau pertsonaren argazkiak jarri ditut, eta urte hauetan guztietan, orotara, 140 pertsonaren laguntza izan dut. Herenegun, esaterako, lau argazki ekarri zizkidan gizon batek hurrengo urteko erakusketarako», azaldu du Llaurok.

Argazkigintza da Domingo Llauroren zaletasun handiena. 1955. urtean egin zituen aurreneko irudiak, osaba Pedrok utzitako makinarekin. Orduetik, Lizarrako historiaren lekuko finenak dira haren argazkiak eta, etxeko armairuan gorde beharrean, denentzat jartzen ditu. Dagoeneko 26.000 negatibo ditu. «Jendeak oso atsegin du erakusketa, jende aunitz dator garai bateko lekuak ikusi eta hil diren pertsonak ikustera. Aste Santuan ohitura bihurtu da erakusketa ikustera etortzea», gaineratu du.

→ Kristina Berasain

'Oroitzapenerako irudiak' erakusketa

Non: Lizarrako Fray Diego kultur etxean
Noiz: Apirilaren 6a arte, astelehenetik larunbatera, 18:30etik 20:30era

Bera ●

Klown antzerkiaren topagunea

JOAN ZEN URTEAN BEZALA, KLOWN IKASTAROAK antolatu dituzte Bai Teatrok eta Axurak. Hartzailak, gainera, aukeran izanen dute egun beteko ikastaroa egin eta udan ikastaro trinkoa egin. Proposatzen den ikastaroak ez du xedeztat pailazoarena egiten ikastea, norberaren barreneko klowna ateratzea baizik. Lan filosofia, berriz, elkarrekin egindako jokoak, eszenan gertatzen diren inprobisazioaldiak eta hitz txandak tartekatuz garatuko da. Ramon Albistur izanen da irakasle, eta, bere aburuz, «persona bakoitzaren emozio baliabideak, espresibitate eta irudimena sekulako altxorak dira,

eta horiek aktorea prestatzeko eta edozein pertsona bezain bereziak diren pertsonaiak sortzeko zaindu eta garatu egin behar dira».

Lehenbiziko ikastaroa datorren apirilaren 14an egingen da, egun berean zortzi orduko ikastaroa eskainiko da, goiz eta arratsalde. Taldeak, gehienez ere, 10 lagunekoak izanen dira, eta goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:00ak arte iraunen du ikastaroak. Euskara, gaztelania eta frantsesa ibiliko dira ikastarootan. Apirilaren 14an bezala, maiatzaren 11n eta ekainaren 16an ere egin ahal izanen da ikastaroa. Matrikula 57 euro kostako da, bazkaria barne.

Egun bakarrekoea ez ezik, astebetekoia ere izanen dute aukeran hartzailak. Ikastaro trinkoa uztailean izanen da, aitzinekoak bezala, Berako Kultur Etxean. Uztailaren 22tik 28ra iraganen da, denetara 44 orduko ikastaroa izanen da eta, gehienez ere, 12 laguneko osatuko da taldea. Antolakuntzak, aukeran, egoitza ere eskaintzen die parte-hartzailerei. Izena ekainaren 25a bitarte eman ahal izango da, Axuran, 948456011 telefonoan. Ikastaro guztiak lehenagotik trebaturik egon edo ez egin daitezke.

→ Jon Abril

Lola Eguren (sic)

Lola Eguren (sic) idazten dut goizeko ordu sakon hauetan. Eta burura badatorkit munduko historiak eman dituen gizon eta emakume handien zerrrenda: Mandela, Lincoln, Roseburg... Musika jakin baten notak izango balira bezala: Lola Eguren, Mandela, Lincoln, Roseburg... Ez al duzue sentitzen erritmo berean? La-la-la... eta musikak urrutira eramaten nau: Normandiako E egunera narama (eta hemen baserri frantsesa ikusten dut, eta bertan erresistentziako neska bat, aldaketa handi baten irrikan); Berlingo Espartakistetara narama (bi gazte Bramdenburgoko atearen gainean. Brontzeko zaldien hanken artean metrailadora prestatuta, beraiek akabatuko dituzten morroien esperoan); Parisera narama (eta Parisen Hiritarrak Eskubideen jabe izan beharko luketeja otu zitzaion tipo bat ikusten dut. Gerora Bastillan moztuko diote lepoa). Pamplo-nara narama (eta hemen Lola Eguren (sic) ikusten dut Parlamentu-buruan... zer edo zertan).

Normandia, Berlin, Paris, Pamploña... Musika bera osatzen duten akorde diferentek. Lola Eguren (sic) idazten dut eguerdiko eurria entzunda. Eta goizean idatzitakoa berriz irakurri ondoren, motz gelditu naizela ohartzen naiz. Jakin nahi nuke bai. Jakin eta idatzi. Washingtonen dagoen Capitolioa Erromako Capitolioaren omezez izendatu zuten antzera, ez al zen posible izango, asko kostatzen al da? (Sinadurak biltzen hasi beharko dugu edo?) NBERen egoitzari Lola Eguren (sic) jartzeko? Ez al da ba begi bistakoa? Ez al du inork nik entzuten dudana musika bera entzuten? Ez al da inork ohartzen akorde baten faltan osatzeke dagoela hau guztia? Ez al du inork Tacito irakurri (redios!)? Mandelaz ahaztu egin al gara? Ez al da jada Historia irakasten unibertsitatean (edo Karpan)? Lola Eguren (sic) idazten dut arratsaldeko araba-zoak lotara doazela. Egun guztia eman dut lerro hauek idazteko, eta oraindik ere zer edo zer gehitu behar dela bururatzen zait. Zer edo zer eskapoa dabilela. Ezin harapatuz. Zer izan litekeen zantzurik aurkitu gabe lotara noa, Historia, Politika, Lola Eguren (sic)... Ez adiorik. ●

Euskararen erabileraren bermeak



Behatokiak, euskara mankomunitateetako, sindikatueta eta euskalgintzako hainbat taldeetako ordezkariak, iazko azaroan, gobernuaren kontrako helegite bat aurkeztu zutenean. ● JOSE LACALLE

Hainbat talde eta banakok bide administratibora jo dute hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko

Nafarroako Gobernuaren neurrien aurka hainbat taldek jarritako helegiteek euskararen normalizazioaren alde egin dute. Administrazioan euskararen erabilpena ziurtatzeko, administrazioa erabiltzea eraginkorra izaten ahal dela erakutsi dute.

A tarrabiako udal informazio aldizkari azken zenbakian, artikulua baten lerroburuak gordinki dio herriko gazteen euskararen erabilera hutsaren hurrengo dela. Karrikaluz elkartek iaz eginko kale neurketaren arabera, haurrek eta helduek gehiago erabiltzen zuten euskara gazteek baino. Burlatako Axular aldizkarian Isidro Ri-

karte teknikariak erran duenez, azkeneko hiruzpalau urteetan kale neurketak egin eta %2 eta %3 arteko emaitzak lortu dira. Hauek dira orokorrean Iruñerri osoan izaten diren emaitzak.

«Erabiltzen ez dena ez da hizkuntza»

Euskara guti erabiltzen da. Baina erabiltzeko aukerak oztopa-

tzen badira, Nafarroako Gobernuak azkenaldian egin duen gisara, are gutiago erabiliko da. Administrazioan erabilera bermatzeko, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, Euskara Kultur Elkargoak, Oinarriak plataformak, Administrazioan Euskaraz taldeak, Batasuna alderdiak eta zenbait banakok ehunka helegite aurkeztu dituzte UPNren

neurri murriztaileen kontra. Batzuetan, Marceliano Etxeko auzian adibidez, arrakasta izan dute. Iragan astean, Nafarroako Auzitegi Gorenaren agindua betez, Iruñeko Udalak aldatu egin behar izan zuen erregistro eta informazio guneako errotulazio elebakarra.

Rikarte teknikariaren aburuz, euskarari erabilera guneak ematean datza normalizazioaren gakoa. «Erabat eralduna den herri batean euskarari ez bazaio erabilerarik eskaintzen, ez da erabiltzen. Eta erabiltzen ez dena ez da hizkuntza».

Hala ere, aukera izanez gero, herritarrek euskara erabiltzen dute, Rikartek adierazi duenez: «Burlatako Udaleko hiru atezainetatik bi euskaldunak dira, eta elebitan hartzen dute telefonoa: 'Ayuntamiento de Burlada, Burlatako Udala' esaten dute. Behin, jasotako dei horiei herritarrek euskaraz edo gaztelaniaz erantzuten zieten apuntatzeko eskatu nien atezainei. Hilabete baten buruan, batez bestekoa egin eta %13k erantzun zuten euskaraz. Hori asko da».

Oinarriak, herritarrek animatu nahian

Administrazioan herritarrek euskara erabil dezaten, Oinarriak elkargunea Euskaraz eskubide osoz kanpaina egiten ari da otsailetik. Kanpainaren baitan hainbat proposamen egin ditu administrazioan euskararen erabilera areagotzeko. Horien artean aipatzekoa da banakoen ekintza bultzatzen duena: Oina-

riak taldeak proposamena egin du instantzia baten bidez norberak bere herriko udalari eska diezaion berarekin euskaraz egiteko. Oinarriak-eko kide Jon Atxegak adierazi duenez, «herriaren inplikazioa lortzeko modu polita iruditu zitzaigun», eta horregatik, instantzia eredu bat prestatu dute edonork erabiltzeko. «Zenbaitzuek bazuten instantziak aurkezteko ohitura. Ohitura hedatzean, agintariak konturatuko dira eskaera bati aurre egin behar diotela».

Oinarriak taldeak herritarrek animatu nahi ditu instantziak aurkezteko. Baina, Atxegak azpimarratu duenez, berak ez du batere arazorik beharrezko helegite guziak aurkezteko, edo aurkezten laguntzeko. Hori bai, kanpaina hau eta etorriko direnak aitzina eramateko, dirua behar da, eta, horregatik, Oinarriak laguntzaile bila dabil. «Egoerari buelta emateko, Nafarroako Gobernuko zoritxarreko agintari hauen kontra egiteko, akuilu ekonomikoa beharrezkoa da», erran du Atxegak. «Inork laguntzarik eman nahi badu, dei dezala 948-220213 telefonora».

Oinarriak bilgunea orain hamar bat urte sortu zen. Bere batzorde iraunkorrean sarturik daude Orreaga, AEK, Euskal Herriko Euskaraz, Sortzen, LAB, Ikasle Abertzaleak, EILAS eta euskara teknikariak. Baina bere inguruan badira IKA, Ikastolen Elkarte eta CGT bezalakoak.

→ Asier Azpilikueta

Gune erdaldunetan sakabanaturik dauden euskaldunak nola edo hala elkartzen saiatzen dira. Euskaldunen bilguneek lekukoa hartu diete perretxikoen gisara agertu eta desagertu diren euskara taldeei. Finean, euskararen erabilerarako aukerak zabaltzea dute asmo bilgune horiek.

Burlatan, konparazio batera, euskaldun asko Axular kultur elkartearen biltzen dira. 1984an sortu zen; Azparren etxea erosi zuten, eta hamar urte geroago, etxearen behin betiko konponketa lanak egin zituenetik, bere egitasmoak ugaltu egin ditu. Horien artean nabarmentzekoa da duela bost urtetik hona argitaratu duten Axular izeneko herri aldizkari txukuna. Azken zenbakia hogeigarrena izan da. Urtean lau zenbaki ateratzen dituzte, euskara hutsean, Burlatako historia ttikia kontatzeko. Burlata herri erdalduna izanagatik ere, aldizkariak hedapen zabala lortu du (3.000 ale). Eta aldizkariaren estilo itxurosoari jarraiki, iragan astean bere webgunea aurkeztu zuen Axularrek:

www.axularnet.com. Axularrek 260 bat bazkide ditu, eta horietako %45 euskaldunak dira.

Karrikirin, berriz, Iruñeko euskaldunen elkartearen, bazkide guztiak euskaldunak dira. Zaldiko Maldiko elkartearen adibideari jarraiki, Karrikirik ere hiriko euskaldunak biltzeko aukera ematen du; baina egoitza batean baino gehiago, bere ekintzen bidez. Karrikiri 1995ean sortu zen, «euskaldunak euskara erabil dezaten dauden bideak erraztu eta ez daudenak irekitzeko». Hala, Karrikirik euskaraz egiten duten denda eta zerbitzuen errolda egiten du; euskarazko zinemaldia antolatzen du; itzulpen zerbitzua du; pisukide euskaldunak aurkitzeko zerbitzua du... Eta hauek guziak egiteko jendea behar dute, jakina. Iazko datuen arabera, 120 bat bazkide zituen Karrikirik. Orain, baz-

kide berriak hartzeko kanpaina sarturik daude.

Eta Karrikiri bezala, Txantrean Euskaldunen Biltokia izeneko elkarte sortzen ari dira. Ezkaba plazako egoitza auzoko beste tarako zabaltzeko nahi dute. Oraingoan, elkarrekin 60 bazkide ditu. Elkartearen ezaugarriak ezagunak ditugu jada: euskaldunak osatua izanen da, euskara hutsean funtzionatuko du eta euskararen erabilera bultzatuko du, bere barreneko bizitzaren eta euskarazko programazio baten bidez.

Euskaldunen bilguneak



Axular kultur elkarte aldizkaria, webgunea eta lan taldea.

ASIER AZPILIKUETA



Badira Iruñea gehiago

Letratuen moduan. Zuta-begile letratuenen modura, aipu batekin hasiko dut aste honetako zutabea: «Badira mundu gehiago, baina honetan daude». Gure seme-alabak beste mundu bateko zonbi bilakatzen dituen PlayStationaren —aurrerantzean PS— publizitate leloetako bat da, oker ez banaiz **Najwa Nimri** telebista iragarkian ahapeka eta modu ezin lizunagoan ahoskatzeko duena —tamalez ahapeka lizunki hitz egiteaz haratago interpretaziorako dohain gutxiren jabe da **Daniel Kalparsororen** neska-laguna: *Piedras* pelikulan, ozen hitz egiten zuen aldi oro kaskatzen zuen—. Badakit pedigri txiro samarreko aipua dela, baina, gutxienez, originala da. Okeragoa izan zitekeela, alegia. Esaterako, **Shakespearek** Nafarroaz esandakoa ekar nezakeen gogora —nafarro mundua harritu dugu, bai, zorigaitzoko aipua milioika aldiz errepikatuz—.



Pio XII aita santua.



Najwa Nimri aktorea —ezkerretik lehena— eta Daniel Kalparsoro zuzendaria —laugarrena—.

Mini-Yorkshire bat da —erdaraka baten bitartez argiago adierazita, ostiko-txakurra—, eta *Fermina* du izena —saindu beltzaranaren omenez—. Ni, jakina, lotsatu egiten nau halako gona-txakurraren atzetik *Fermina* oihukatzen ibiltzeak, eta, gauzak horrela, seme-alabak bidaltzen ditut piztia Eroritako gibebeko parkera paseatzera.

Pio XIIren moduan. Igandean, baina, emazteak guk paseatuko genuela erabaki zuen, eta neure begi ninietako azukre koskorrak zerbait erabakitzen duelarik, hobe kontra ez egitea. Beraz, ez nion kontra egin, baina bai zeharka: paseoa Arantzadin barna egitea proposatu nion, inor ezagunik ez topatzeko xede aitortugabearekin. Berari ideia zoragarria iruditu zitzaion, eta beraz, Arantzadira joan ginen. Bazter hartan jende gutxi topatuko genuela uste nuen. Arrazatarrek eraiki Pio XIIren estatua barkartia topatzea besterik ez nuen espero —Etxe Zuriaren parekoa—. Uste ustela zen, ordea. Tirantedun

Okupen moduan. Guraso garaikideon bizi-kalitatearen hobekuntzaren aldeko ekarpenik handienaren egileen arabera —haurrentzako ezin zen amestu ere egin PS baino aparkaleku erosoago eta eraginkorragorik—, beraz, munduak, matriuska panpin errusiarren modura, mundu gehiago gordetzen ditu bere baitan. **Baltasar Garzonek** edo eta **Jose Luis Rodríguez Zapaterok** bezala globalizazioaren kontra gogor eginez —epaileak Porto Alegreko topaketetan

hitza egin zuen, eta PSOEko buruak Bartzelonako mobilizazioak bultzatu zituen. Martxa honetan, aurki biok, baita **Juan Jose Lizarbek** ere, txirikorda potoloak eginen dituzte ilean, okupen modura. Horiek dira horiek globalizazioaren aurkako borrokalariak, eta ez **Carlos Aznarez**, **Sabino Cuadra** eta enparauak—, mezu mundializatua gurera egoki daiteke: badira Iruñea gehiago, baina honetan daude.

Ingeniarien moduan. Joan den igandean, hain justu, gure Iruñearen baitan ezkututzen den beste Iruñea horietako bat ezagutu nuen. Koinata Miren oportetan joan da —Nafarroako Gobernu funtzionarioa da, eta San Jose zubia eta Aste Santua akueduktu luzean lotu ditu, pilaturiko ez dakit zer ordu estra baliatuz: Bide eta Portu Ingeniarien Elkargoko ama-ponteko izendatu beharko lukete—, eta txakurra utzi digu, apopilo. Animalia

kamisetaekin, jaka gerrian lotuta, kapela buruan, txandal prakak jantzita, bakarka, binaka, taldeka azkar ibiltzen dozenaka, ehunka, milaka edadeko emakume topatu genituen. Guztiz harritu nintzen. Nik dakidala, haien kirolak oraindik ez du izenik. Barbarismoen bidetik joz, *walking* izenda liteke; eufemismoak erabilia, *intentsitate baxuko lasterkaldia*. Izendapenak izendapen, beste Iruñea bat da, beste mundu bat, baina honetan dago...



panpilonia zirkus

Mozorro gaua

«Hi, ea nor ausartzen den aurten prozesioan erromatarrez jantzita ateratzera». «Bai, Gazteluko plazako erromatarren garaiko harriei Barcinak egin nahi diena ikusita, larrutuko gaitiztek. Larri ibili». Agustin Nuin eta Iñaki Osakar, aspalditik hona, zenturioia eta dekurioia dira, ortziraile sanduko prozesioan. «Hobe mozorro ateratzea eta kitto, mozorro beharretan dabilta, gainera». «Bai horixe, eta zenturioi, Simon atera dadila, Simon Santamaria udaltzainburua, noski, ez apostolua». «Mozorro pean, gainera, tragoxa ederrak hartzen ditiztek eta guk ezin».

Izan ere, urtetik urtera, gero eta mozorro gutxiago karrikaritzen ari da, eta Jaunaren Pasioaren Ermandadean kezaturik dabilta. Oraingo, eskasia

mozorro kandela eramaileen artean sumatu da, baina auskalo urteren batean behar adina mozorrorik izanen den pasoa eramateko. Horregatik, lehengo batean, Ermandadean baten batek iradoki zuen pasoa batzuei motorra paratu beharko litzaiekeela, eta ia-ia gurutziltzatu zuten.

Pasorik astunenak gurgil gainean doaz, mozorroek bultzaturik, eta, arinenak, aldiz, soin gainean daramatzate. Jokin Lerga «azken afarian» dago: «Astunena duk, izerdia ederki botatzen diagu eta jesukristoren ahalegina egin behar izaten diagu Kuriako aldapa igotzeko. Beharrik, 12 apostolu baizik ez zituan izan, bertzenaz. Halere, behin batean, ia eskuen artetik ihes egin ziguan: bat Bar Templen sartu zuan pixalarri, bertze bat

PAMPLONA ESTRENA SIGLO



Iruñeko prozesioko aspaldiko zenturioi erromatarra.

petakatik tragoa egiten ari zuan, bertze izkinakoak solas-jolas, eta halako batean, atzeraka zoan, baina heldu, indar alimalea egin eta ez zuan txandorik gertatu. Bertzenaz, pentsa, harresitik beheiti

Enrike Diez de Ultzurrin

Argara botako gintiztean, Udaletxe plazan harrikatu ondotik».

Giro bitxia izaten da paso eramaileen artean. Topalekua izaten da, solas egiteko toki hauta, isilpekoa. Han elkartzen dira eguneroko bizitzan arerio sutsuak direnak, pentsamolde ezberdineko jendea, mutur batetik hasi eta bertzeraino, ateoak barne, eta denak kartsu hura guztia babesterakoan. Bertzela, galdetu katakrak taldekoen bizkar eta hezurrei.

Eguraldiak lagundurik, beraz, mozorroekin batera, han ibiltzen dira, Jainkoaren Herria, Itunaren Kutxa, Zazpi Hitzak, Israelgo 12 leinuak, Anan eta Kaifas sazerdote goren makurrak, Judas Iskariote, erromatarren zaldi zuriak, zaldi kakak biltzeko garbitzaileak eta bertze. Segizioa bukatuta, olibak eta ardoa eman, eta eskatuko diete kandelak itzultzeko. Izan ere, behin baino gehiagotan, kandela puskak eta mozorro arropak agertu izan baitira Iruñeko gau giroko tokietan.



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Legez kanpo

Garai batean, ez oso aspaldian, «demokrazian edozein ideia» edo «ideia guztiak» defenditzen ahal zirela entzuten genuen behin eta berriz, borroka armatuaren antzutasuna agerian utzi nahian. Orduan hori ziotenek ez dakit gaur gauza bera esaten segituko duten, baina hala bada, luzatu beharko dute esaldia: «Demokrazia batean ideia guztiak defenditzen ahal dira baldin eta...», eta has gintezke salbuespen egoerak zerrendatzen:

«...ideia horiek nire gustukoak badira». Bestela, badakigu zein den «irtenbidea»: borroka armatua aitzakiatzat erabiliz, haien aitona-amonek erakutsitakoa praktikara eramanen dute berriro, alderdiak, sindikatuak eta gisa guztietako erakundeak klandestinitatera eramanen dituzte berriro, kirtena noren eskuetan dagoen argi utziz.

«...ideia horiek gure konstituzioa eta marko legalaren barruan kokatzen badira». Gauza jakina baita Mugimenduaren oinarriko habe berria horixe dela, ukiezi-na den liburu hits hori, «kontsentsuaren» fruitua dena. Horregatik, hortik kanpo ez dago deus, amildegi iluna bere konstituzio edo, zergatik ez, legerik gabeko herria aldarrikatzen duen edonorentzat.

«...eskaintzen dizuguna benetako demokrazia izanen balitz». Egunkariak eta aldizkariak ixtea, erakundeak legez kanpo jartzea, udalak bertan behera uztea, ordezkarik politikoak kartzelatzea. Demokrazia ulertzeko modu bitxia jaun-andere hauek dutena.

«...ideia horiek ideia bakarraren barruan sartzen badira». Azken finean, ameskeria hutsa da, pentsamendu askatasunaz hitz egitea pentsamendu bakarra inposatu nahi denean, berdin botilatza-rrarekin zein telebista programazioarekin. Bestelakorik lotsarik gabeko faxismoa da, demokraziaren izenpean moztrotzen dena. Zinez, kezkatzeko arrazoi franko izanen nituzke espainiarra banintz...

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Tutera:** El Color de la Duda taldeak Number Sixty garagardotegian joko du gaur, gaueko hamabietan.
- ▶ **Lodosa:** Su Ta Gar eta La Polla taldeek kontzertua emanen dute bihar kiroldegian.
- ▶ **Erriberri:** Indulgencia, Eccehomo, Onabru, Kaña a España, KGI eta Remember taldeek La Flema aretoan joko dute bihar, 22:00etatik aurrera.
- ▶ **Iruñea:** Los Perezosos kantabriarrek Terminal tabernan joko dute ostegunean, 21:30ean.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Hazparne:** Bertsulariak ikastolarat kanpainaren barnean, Ugo Carrere, Peio Harriague, Koxe Barbier, Txomin Elozegi, Anatol Arestegi, Eleonor Chambon eta Mikele Duhaldek ikastolako areto nagusian kantatuko dute gaur, 10:30ean.
- ▶ **Uztaritze:** Elorri Ametztoi, Mizel Mateo, Patxi Iriart eta Ekhi Erremundegi bertsulariak ikastolako areto nagusian ariko dira gaur, 15:30ean.
- ▶ **Miarritze:** Odei Barroso, Maindi Murua, Kristiñe Txoperena eta Maddalen Arzallus bertsulariek ikastolako areto nagusian egingen dute bertsotan gaur, 10:30ean.

ANTZERKIA

- ▶ **Iruñea:** Kollins Clown taldeak *Gure oilo Marimotroilo* eta *Txokolatzeko etxetxoá* antzezlanak taularatuko ditu asteartean, 18:00etan, Donibane Kirol Elkartearen.
- ▶ **Mutiloagoiti:** Kollins Clown taldeak *Arratoitxo maripertxenta* eta *Katu botaduna* antzezlanak emanen ditu ostegunean, 18:30ean, kultur etxean.

LEHIAKETAK

- ▶ **Barañain:** Herriko bestetarako kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea apirilaren 10ean akituko da. Lanek 75 cm luze eta 50 cm zabal izan behar dute, nahitaez. Ondoko testua agertuko da: Fiestas de Barañain del 26 al 30 de junio de 2002 / Barañaingo festak 2002ko ekainaren 26tik 30era. Barañaingo armariak ere agertu beharko du.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Juan Cañadaren *La música del corazón* argazki erakusketa osteguna arte izanen dute Maissonave hotelako Iruña fotogalerian.
- ▶ **Iruñea:** Iruñerriko zazpi ikaste-

txetako haurrek eginiko marrazkiak Hezkuntza Departamentuko eraikineko klausuroaren gainekoan ikus daitezke lanegunetako goizetan, apirilaren 8a arte.

▶ **Iruñea:** Iñaki Lazkoz artistaren *Captar lo esencial* erakusketa lanak Carlos Ziriza galerian (Berria, 123) izanen dira apirilko 12a arte. Asteartetik ostiralera 18:00etatik 20:30era ikus daiteke, eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

▶ **Atarrabia:** Jose Maria Ballestaren *Hondarribia, una vida en el mar* argazki erakusketa kultur etxean izanen dute apirilaren 12a arte. Astelehenetik ostiralera ikus daiteke, 17:00etatik 21:00etara.

▶ **Iruñea:** Simonides artistaren margolanak Molmar galerian izanen dira (Curia, 18) apirilaren 13a arte. Lanegunetan ikus daitezke, 11:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:30era.

BESTELAKOAK

▶ **Iruñea:** Ostiral santuko meza euskaraz emanen dute gaur, 17:30ean, maristen elizan (Zangoza, 26). Eliza berean, bihar, 21:00etan hasita, Pazko Gau-beila izanen da, euskaraz hori ere.

▶ **Burlata:** Axular elkarteko hainbat gaztek herri jokoak erakutsiko dizkiete asteazkenean, 17:00etatik aurrera, Azparren etxera biltzen diren haurrei.

Asteko erakusketa



Alvaro Barrientos

Zer: 'Colombia, desastres de la guerra' argazki erakusketa.

Non: Zizur Nagusiko kultur etxean.

Noiz arte: Apirilaren 1a arte.

Ordutegia: Jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.